

EUSKARA BATZORDEAK 2018ko EKAINAREN 26an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Marisa Aldamizetxebarria (Euskara Zinegotzia)
Jon Argintxona (BILDU)
Ziortza Polin (EAJ-PNV)
Luis Ortuzar (Gernika Institutua)
Kepa Bilbao (Gernika Institutua)
Espe Bilbao (herritarra)
Josu Erkiaga (Aita Villasante Udal Euskaltegia)
Estiñe Astorkia (Hitzargune/Euskara dinamizatzailea)
Xabier Goiria (URE elkarte)
Bittor Zarrabeitia (Batzordekoa idazkaria / Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30
Amaiera ordua: 20:00

Ezin etorria zuritu dutenak:
Pili Ibarra

AZTERGAI BAKARRA.- ESEP-Plan Estrategiko berriaren zirriborroa aztertu eta aurrera jotzeko erabakia hartzea, hala balegokio.

Batzordeko idazkariak informazioa eskaini du partaidetza prozesuan bete diren urratsei buruz. Jarraian, ESEP-ren nondik norakoak eta moldatutako Planaren zirriborroaren egituraz aritu da (helburu estrategikoak, zehar lerroak, esparruak,...).

Esparruz esparru aztertu da zirriborroa, txertatu diren ekintza berriak eta ekarpenak nabarmenduz.

Estiñe Astorkiak zehaztasunak eman ditu arlo sozioekonomikoari dagokionean, HITZARGUNE kanpainaren bitartez, eta agenteekin sinaturiko hitzarmena oinarri, merkataritza-ostalaritzan (195), enpresetan (52) eta elkarteetan (59) zer lantzen den argituz.



Esparru bakoitzeko ekintzetan erreparatzearekin batera, hausnarketa egin da euskararen erabilerarako gazteengan eragiten duten bariabalei buruz.

Erabakia.- Hurrengo batzar bat egingo da zirriborroa findu ostean (ekintzak burutuko diren urteak eta abarrak...), partaidetza prozesuan parte hartu duten guztiei gonbidapen berezia eginik behin-betiko ESEP Plana aurkezteko.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Marisa Aldamizetxebarria

Izp.: Euskara Teknikaria
Bittor Zarrabeitia

